


“EMAN GILTZA | ¡HÁBLALE, ESCÚCHALE!” EUSKARA FAMILIA BIDEZ TRANSMITITZEKO KANPAINA




Enkarterriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Alkarbide bilguneak koordinatutako eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako “Eman Giltza - ¡Háblale, escúchale! kanpainarekin bat egin du. Kanpainaren xedea euskara ingurune hurbilean transmititzeak duen garrantzia nabarmentzea da.

Horretarako, Mankomunitateak irailean gutun bat banatu die 2014ko lehenengo sei hilekoan jaio diren umeen gurasoei eta urtarrilean banatuko die bigarren sei hilekoan jaiotakoei. Gutuna Mankomunitateko presidentek sinatzen du eta seme-alabak elebitasunean heztera animatzen du. Horretaz gain, kanpainaren gakoa den web orri bati buruzko informazioa ere ematen du: www.emangiltza.com. Web guneak gurasoentzat transmisioa bermatzeko giltza izango diren aholkuak, tresnak eta baliabideak batzen ditu. Gainera, hainbat gurasoren testigantzak ere sartu dira beste guraso batzuek izan ditzaketen kezka, beldur edota bestelako zalantzak argitze eta uxatze aldera.

Horrekin batera, KU-KU liburuxka eta CD bat banatu da. Liburuxkaren helburua gurasoei umeekin euskaraz aritzeko baliabideak eskaintzea da. Liburuxkaren hasieran, umearen hizkuntza trebetasunaren garapen prozesua azaltzen da eta seme-alabak eleaniztasunean hezteak sortzen dituen hamaika kezka eta galderaren erantzunak jasotzen dira; jarraian, hiztegi laburra agertzen da, hainbat ataletan bereizita. Ondoren, umeekin berba egiterakoan egiten ditugun akats ohikoenak zelan zuzendu behar diren jaso da; eta amaiera aldean, zuen seme-alabekin gozatzeko jolasak eta abestiak aurkituko dituzue. Aurten, lehenengo aldiz digitalizatu da liburuxkaren edukia, besteak beste, gurasook ariketak egin ahal izateko, jolasak zelan egin behar diren ikusteko...; eta, bestetik, umeek euskaraz jolasteko hainbat joko sortu dira ordenagailuan bertan jolas dezaten. Hau osatzeko, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gurasoentzat baliagarriak izan daitezkeen web orri eta hainbat materialaren zerrenda gehitu du.

Material osagarri gisa autoan jartzeko pegatinak ere banatu dira. Pegatinak umeak autoan doazela ohartarazteko diseinatu dira. Pegatinetan ageri den leloa “**eman euskara**” da eta bertan ere webgunearen aipamena egiten da. Euskarri honi esker, kanpainaren hartzaileak ez direnengana ere heldu nahi da, erabiltzaileei esker kalean gainontzekoek ikusi ahal izango dutelako.

CAMPAÑA PARA PROMOVER LA TRANSMISIÓN FAMILIAR DEL EUSKERA BAJO EL LEMA “EMAN GILTZA /HÁBLALE, ESCÚCHALE”



La Mancomunidad promueve la transmisión del euskera.

El Servicio de Euskera de la Mancomunidad de las Encartaciones se ha adherido a la campaña “Eman Giltza - ¡Háblale, escúchale! coordinada por el foro técnico ALKARBIDE con el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia, con el objetivo de destacar la importancia de la familia en la transmisión del euskera de generación en generación.

Para ello, la Mancomunidad ha repartido en septiembre una carta, firmada por la Presidenta a los padres y madres de los/as recién nacidos en el primer semestre del año en los municipios que componen la Mancomunidad y en enero se repartirá a los que nazcan en el segundo semestre. En la carta la Presidenta de la Mancomunidad anima a los padres y madres a educar al recién nacido en el bilingüismo y ofrece información sobre la página web creada para resolver las dudas o temores que pueden tener dichos padres y madres: www.emangiltza.com. Esta página contiene pautas, herramientas y recursos que serán claves para fomentar y asegurar la transmisión. Además se han incluido los testimonios de varios padres y madres de diversas tipologías para poder aclarar las dudas, preocupaciones o temores que puedan tener los/las demás padres y madres.

Junto con la carta se ha distribuido la guía KU-KU y el CD cuyo objetivo es ofrecer recursos para que los padres y madres puedan dirigirse a sus hijas e hijos en euskera. El libro se divide en cuatro partes: al comienzo se explica el proceso de desarrollo de las destrezas lingüísticas de los niños y niñas y, además, se incluyen respuestas a muchas dudas y temores que surgen al educar en el plurilingüismo. La segunda parte consta de un diccionario euskera-castellano con diferentes apartados. A continuación se han recopilado algunos de los errores más frecuentes que cometemos al hablar en euskera con nuestras hijas e hijos; y para finalizar os ofrecemos algunos juegos y canciones. El DVD que se adjunta a la publicación se ha creado para ser utilizado tanto por los padres y madres como por los pequeños y pequeñas. Se ha digitalizado el libro para que puedan realizar ejercicios, escuchar palabras y expresiones en euskera,...; y por otro lado, los más pequeños tendrán la opción de jugar en euskera. Para completar la información el Servicio de Euskera ha añadido una lista de páginas web que pueden ser de interés para los padres y madres.

Como material complementario se han repartido unas pegatinas para el coche que han sido diseñadas para identificar que viajan menores con el lema “**eman euskara**”. En las pegatinas también se hace mención de la página web. Con este material se quiere llegar a toda la ciudadanía, ya que gracias a su uso en la calle, le mensaje llegará también a los que no son directamente destinatarios/as de la campaña.